



ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS Y
EMPRENDEDORES DE VALDEGOVÍA

PRENTSA-OHARRA

Añanako Eskualdea, 2020ko azaroaren 28a.- Gaubeako eta Iruñerriko Enpresaburuen eta Ekintzaileen Elkarteak salatzen du mugikortasuneko murrizketen ondorioz, biztanleria-dentsitate txikiko udalerrietan dauden dozenaka landa-negozio itotzen ari direla, batez ere Araban. Hortaz, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio itzuli beharrik gabeko laguntzak ezar ditzan, lurralde bakoitzean gertatzen ari den egoera ekonomiko zaila arintzeko eta, betiere, mugikortasun-neurriak egokitzeko.

Elkarte honek, Gaubeako eta Añanako eskualdean ostalaritza- eta turismo-negozioak dituzten ehun bat enpresaburu eta ekintzaile biltzen dituelarik, gogorarazten du bere jarduera “giltzarria” dela **landa-despopulazioa** geldiarazteko, “eskualde honetan bereziki larria den arazoa”, baina deitoratzen du osasun-krisi honetan autonomia-gobernuak “**ahaztu eta gutxietsi**” egin dituela.

“Negozio familiar eta ekintzaile txikiak gara, herriei bizia ematearen alde egiten dugunak eta ingurumen naturala eta kulturala babesten dihardugunak, enplegu egonkorra sortzen dugun bitartean, ez prekariora, biztanleria finkatzen laguntzen duena”, azpimarratzen du.

Elkarteak deitoratu egiten du bere ustez landa-mundua jasaten ari den ahanztura, erabakiak lurralde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu gabe hartzen direnean, eta Añanaren egoera berean dauden beste eskualde batzuei dei egiten die udalerrri txikien ahotsa batu eta berma dezaten, “ahalik eta altuena” irits dadin.

Alde horretatik, elkarteak adierazten du Añanako udalerrri txikiek **mendekotasun sozioekonomiko handia** dutela Arabako eta EAeko beste udalerrri batzuekiko, eta adierazten du bizileku-udalerritik haratago **mugitzeko debekua** “askoz kaltegarriagoa dela ekonomikoki” Gaubea bezalako udalerrri batentzat (1.000 biztanle baino gutxiago dituen), Arabako hiriburuan gertatzen denarekin alderatuta, ezinezkoa baita landa-etxeetan, hoteletan eta kanpinetan eskualdeko bezeroak jasotzea.

Eskualdeko taberna eta jatetxeei dagokionez, hauen kasuan gogoan izan behar da bigarren alarma-egoera deklaratu zenetik (Gasteizen baino dezente lehenago) itxita daudela, “udalerrien arteko mugikortasunik ezak itxitura goiztiar horretara eraman baitzituen”.

Gaubeako eta Eskualdeko Enpresaburuen eta Ekintzaileen Elkarteak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, osasun-egoerari eta pandemiari aurre egiteko neurriak hartzerako garaian, kontuan har dadila lurralde bakoitzaren egoera epidemiologikoa (Araba eremu gorri deiturikotik kanpo dago), eta saihestu daitezela mugikortasuna murrizteko neurri orokorrak, hauek eragin ekonomiko negatibo handia baitute udalerrri txikienetan, **modu zegaztugabea “itotzen” dituztelako**.

“Egungoko mugikortasun murrizketak direla eta, medikuntza-terminoetan hitz eginez, **itzulezina izan daitekeen koma batera eramaten ari zaigu**” ohartarazten du elkarteak.

Elkarte horrek proposatzen du “burbuila-taldeetan” mugitzeko aukera ematea, segurtasunez, Gasteizko familia batek (bizikideak izanik) arazorik gabe eskualdeko edozein landa-etxetan ostatu hartzeko edo Añanako Gatz Harana bisitatzeko aukera izan dezan, horrek birusa hedatzeko arriskurik sortu gabe.

Alde horretatik, eskualdeko enpresaburuen aburuz, landa-eremuek zeregin garrantzitsua izan dezakete EAeko hiriburuetatik hurbil dauden berdeguneetan gertatzen ari den masifikazioa murrizten laguntzeko.

“Ez al da hobe naturara modu seguruan etortzea Olarizun 100 gasteiztar izatea baino?”, galdetzen diote euren buruari, eta argitzen dute “jendeak orain inoiz baino gehiago behar du landara ateratzea”.

Ildo beretik, uste dute ez duela zentzurik neurri berak aplikatzea euskal hiriburuan eta Añana bezalako landa-eremu batean, non kasuen eragina hutsala den.

TURISMOAREN MUNDU-ERAKUNDEA

Añanako enpresaburuek eta ekintzaileek gogorarazi dute **2020. urtea** Turismoaren Mundu Erakundeak (TME) **Turismoaren eta Landa Garapenaren Urtea** izendatu duela, eta honako hau sinatu dute: “COVID-19 delakoaren pandemiak munduko sektore turistikoan sorturiko ondorioak kontuan hartuta, turismoa eta landa-garapena ez dira inoiz orain bezain garrantzitsuak izan”.

Turismoaren Mundu Erakundea bera aipatuz, adierazi dute “landa-eremuetako turismoak suspertze-aukera garrantzitsuak eskaintzen ditu, beraz, funtsezkoa da pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialak pairatzen dituzten landa-komunitateei laguntzea”.

Halaber, gogorarazi dute “landa-eremuetan turismoa sustatzeak, sektorearen onurak banatzeaz gain, gehien bisitatzen diren hiriguneetako presioa murrizten laguntzen du”.

Hala ere, TMEk bere web orrian gogorarazten duen legez, **sektore publikoak** turismoaren landa-garapena bultzatzeko garaian duen **funtzioa funtsezkoa** dela diote.

LABURBILDUZ:

Gaubeako eta Añanako Eskualdeko Enpresaburuen eta Ekintzaileen Elkarteak hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

- Landa-turismoko negozioen **ekitaldi itxiera** onartzea, egungo mugekin ezin baitute bezerorik hartu.
- **Itzuli beharrik gabeko laguntzak**, landa-turismoko negozioak kudeatzen eta beren betebeharrak bere gain hartzen jarraitzen dituztenentzat (autonomoen kuotak, hipotekak, alokairuak), nahiz eta ezin duten fakturatu jarduera ekonomikorik ez dutelako.
- **Lurralde barruan mugitzeko baimena** izatea, betiere hau eremu gorrian ez badago.
- **“Inor ez da atzean geratuko”** bermatzea koronabirusaren krisiaren irteeran.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK:

Joseba Markínez (Elai hides/Elai Etxea Birding House): 615 70 14 87

Beatriz Pascual (Restaurante El Almacen y La Kabaña) 628 17 50 79

Joana Molinuevo (Caserío Montehermoso) 607 38 37 47

Alfredo Orive (Presidente ADEV) 619 01 51 52 asociacion@valdegovia.org